2017-12-01 OSTIRALA / 1402. ZENBAKIA
LASARTE-ORIA TXINTXARRI.EUS TOKIKOM

txintxarri

TXINTXARRI

Euriak ez du Euskal Jai giroa zapuztu

Kantu dantza jiran ahitutako energia paellarekin berreskuratu, eta berriz ere dantzan amaitu dute jaialdia / 6-7

Sormen lanak saritu ditu udalak

Euskarazko eta gaztelaniazko 393 lan aurkeztu dituzte aurtengo lehiaketara, eta horietatik, euskarazko gazteen lehiaketak izan du parte hartzaile gehien / 8-9

Errefuxiatuei materiala bidaltzeko Talde Aktibistak bilketa hasiko du abenduaren 15ean, Okendon / 3

Bartzelonan absolutu mailako Espainiako Igeriketa Txapelketan aritu dira Martin ahizpak / 10

Musika emanaldiak eta Eguberrietako ekintzak nagusi izango dira abenduko kultur agendan / 5

Hemeretzi herritarrek osatu dute balentria igandean Donostian, maratoiko 42 kilometroak osatuta / 12

Josue Igeltseritza SL
Igeltseritza orokorra
Fatxaden estaldurak
Estalkien berriztatzeak
Barruko berrikuntzak
Gremioen koordinaketa
606 37 21 05
Atallu pol. atallu, 28
USURBIL
josueigeltseritza@euskalnet.net

Nagusia 49,
Lasarte-Oria
943 37 02 90
Jantzi denda
INQUIETUD
38-60 neurriak

Txapelketa nagusiko finalaurrekoei begira

Andoni Egañak Bertsolaritza Txapelketa Nagusiko gorabeherak izan ditu hizpide Xirimiri elkartean. Hurrengo asteartean Ane Lababakak eta Imanol Lizardik errepasatuko dute Iruñeako finalaurrekoak emandakoa, Ttakunenea elkartean

Txintxarri

Bertsolaritza Txapelketa Nagusiko finala iritsi ahala, bertsotan aritu bakarrik ez, bertsoei buruz hitz egiteko garaia ere bada. Donibane Lohizuneko finalaurrekoak eman duenaz aritu dira Xirimiri elkartean, Ttakun Kultur Elkarteak eta Bertso Eskolak antolatutako solasaldian. Gonbidatu berezi baten eskutik eman diote errepasoa txapelketari, eta, oro har, bertsolaritzari: Andoni Egaña bertsolaria. Miren Artetxeren Durangoko saioa ere hizpide izan du Egañak: "Bertsoak irakurriz gero, ikusten da onak direla, baina bertso txarrak izango balira bezala kantatu zituen". Asteartean egingo dute hurrengo solasaldia, 19:30ean, Ttakunenean.

Orain zortzi urte utzi zuen txapelketa Egañak, eta orain zorabio handiagoa ematen dio oholtzak. "Harritu egiten nau pentsatzeak hor aritzen nintzela". Ez baita lan samurra bertsolariena: "Pentsatu iturginen lehiaketa egingo balute erakusleiho handi batean, denok ikusteko moduan. Ausardia handia behar da".

Andoni Egaña, txapelketaren nondik norakoak azaltzen. TXINTXARRI

Bertsolariez gainera, epaileak eta gai jartzaileak miresten ditu. "Epailearena egin izan dut etxean, eta kartzela iritsi arte ez da atsedenik. Lan oso zaila da".

Herrigintza, bertsotan

Halere, iruditzen zaio txapelketan gehiegi zigortzen dituztela ondo hasi ez direnak. "Hondoratu egiten dituzte".

Lau urtean behin, Txapelketa Nagusiak aukera ona ematen du "bertsolaritza bizitzeko moduak" ikusteko. Izan ere, Egañak aitortu du ez diola inoiz ikasteari utzi. "Azal askotako tipula da bertsolaritza, eta txapelketak ahalbidetzen du azal mota guztiak azaleratzea".

Gainera, antolatzaileak zoriondu ditu, txapelketa "inoiz baino Euskal Herriagokoa" delako. Maulen, Bastidan, Donibane Lohizunen... egin dituzte saioak. "Hernanin edo Tolosan sarrera gehiago salduko lituztekte, baina hori ez da kontua".

TXINTXARRI

Presoak askatzeko aldarria

Sortu Lasarte-Oriak deituta, hainbat lasarteoriatar atera dira ostirala iluntzean Santi Arrozpide eta Javi Gallaga herritarrak aske uzteko eskatzera. Okendo plazatik abiatuta, erdiguneko kaleetan barrena Arrozpide eta Gallaga presoak kaleratzeko eskatu zuten, *Bizi osorako zigorrik ez! Xanti eta Javi kalera! Gurekin nahi zaituztegu* lelodun afixa eskuetan zeramatela. Larunbatean hogei urte bete dira Javi Gallaga atxilotu zutenetik. Hiru hamarkada egin ditu Santi Arrozpidek honezkero, espetxeetako barrote artean.

TXINTXARRI

Airearen kalitatea neurtzen

Gipuzkoako Foru Aldundiak airearen neurgailuak ezarri ditu, Zubietako erraustegiaren inguruko airearen kalitatea neurtzeko. Horietako bat jarri dute Lasarte-Orian, Tximistarreta parkean. Jose Ignacio Asensio eta Elena Moreno aldundiko Ingurumeneko arduradunak izan dira herrian. Lehen ebaluazio bat egingo dute erraustegia abiatu aurretik, gero datuak alderatzeko.

Kultura, Hezkuntza eta Gizarte arloko laguntzak, eskuragarri

Diru laguntzen eskaerak Lasarte-Oriako Udalaren erregistro orokorrean aurkeztu behar dira

Txintxarri

Lasarte-Oriako Kultura eta Hezkuntza arloko diru-laguntzen oinarriak eta ongizate sozialaren garapenerako lan egiten duten erakundei zuzendutako diru laguntzen oinarriak argitaratu dira Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Laguntzak lehia bidez banatuko dira.

Kulturaren sustapenerako eta zabalkunderako programetarako 9.190 euro banatuko dira, 9.627 euro eskola orduz kanpoko edota izaera osagarriko jarduera hezigarrietarako, eta, gizarte-intereseko laguntzei dagokionez, aurten 17.500 euro bideratu ditu udalak.

Kultura eta Hezkuntza

Kultura saileko diru laguntzen onuradun izan daitezke Lasarte-Orian interes orokorreko jarduerak garatzen dituzten elkarteak, edo izaera juridikorik gabeko beste erakunde batzuk ere. Eskola orduz kanpoko jardueren kasuan, onuradun izan daitezke, eskol -orduz kanpoko eta gurasoen formaziorako interes orokorreko jarduerak garatzen dituzten Lasarte-Oriako eskoletako gurasoen elkarteak.

Lasarte-Oriako Udalak elkarteek aurkeztutako proiektuen artean banatuko ditu diru laguntzak, betiere deialdi horietako baldintzak betetzen badituzte.

Gizarte zerbitzuak

Gizarte zerbitzuetako arloko laguntzei dagokionez, diru-laguntzen onuradunak Gizarte Zerbitzuen eremuan jarduerak egiten dituzten pertsona edo elkarteak izango dira: biztanle guztien ongizatea sustatzen dituztenak, eta, bereziki, gizartetik baztertzeko arriskuak, haurren babesgabetasuneko egoerak eta mendekotasun arriskuak saihesteko lan egiten dutenak.

Irabazi asmorik gabeko Gipuzkoako elkarte edo pertsona fisikoek eskatu ahal izango dituzte diru laguntza horiek, betiere haien jarduerak oinarri horien xedearekin bat baldin badatoz, eta zerbitzua Lasarte-Oriako udalerrian ematen badute. Era berean, diru-laguntzen onuradun izan daitezke udalerriarentzat interesekotzat jo daitezkeen jarduerak egiten dituzten Gipuzkoako entitate sozialak, nahiz eta zuzenean Lasarte-Orian zerbitzurik ez eman.

Diru laguntza bakoitzaren zenbatekoak ezingo du 2.800 euroko kopurua gainditu. Entitateak eskatutako kopurua ere ezingo da kopuru hori baino gehiagokoa izan. Elkarte edota pertsona fisiko bakoitzak proiektu bakar bat aurkez dezake.

Eskaerak

Hezkuntza eta Kultura arloko diru laguntzak abenduaren 11ra arte eskatu ahalko dira. Gizarte Zerbitzuetako eskaerak aurkezteko, berriz, azaroaren 22tik hasita, 30 egun baliodun daude.

Eskaerak Lasarte-Oriako Udalaren Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira.

Laguntza horiei buruzko xehetasunak, hala nola, balorazio-irizpideak eta laguntza bakoitzaren zenbatekoa zehazteko irizpideak Lasarte-Oriako Udaleko webgunean edo Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aurki daitezke.

Iheslarientzako material bilketa, Okendo plazan

Lasarte-Oriako Talde Aktibistak errefuxiatuentzako materiala bilduko du abenduaren 15ean eta 16an. Ongi Etorri Errefuxiatuak elkartearekin elkarlanean ari dira, eta bildutakoa Bilboko portuan daudenei bidaliko diete. Negurako arropa behar dute

Txintxarri

Errefuxiatuen drama azaleratzen denean, askok Grezian edo Italiako kostaldean jartzen dute begirada. Baina laguntzeko ez da horren urruti joan beharrik, Euskal Herrian bertan badago-eta nor babestu. Bilboko portuaren inguruan errefuxiatu talde bat bizi da, Erresuma Batura jauzi egiteko esperantzarekin. Hain zuzen, talde horri laguntza emateko abiatu du Lasarte-Oriako Talde Aktibistak material bilketa. Okendo plazan jasoko dute neguko materiala; abenduaren 15ean, 18:30etik 20:30era; eta hurrengo egunean, 11:00etatik 14:00etara.

Joan den astean eztabaida egin zuten boluntarioekin. TXINTXARRI

Talde Aktibista errefuxiatuen alde lanean jarduten duten elkarteekin bildu da, eta haien beharrak identifikatu dituzte: negua igarotzeko materiala. "Ongi Etorri Errefuxiatuak eta Zaporeak elkarteei galdetu genien, eta esan ziguten Bilbora bidaliko zutela bildutakoa. Soilik behar-beharrezkoa dutena bilduko dugu, bestela gauza gehiegi pilatzen dira", azaldu diote Txintxarri-ri Talde Aktibistako kide Amaia Amianok eta Ioritz Iparragirrek.

Hortaz, lauzpabost pertsonarentzako kanpin dendak; esterilak eta material isolatzaileak; zapatak, batez ere 40-45 neurrikoak; berokiak eta jakak; galtzerdiak; eta motxilak eskatu dituzte. "Hori da orain behar dutena, beste guztia badaukate". Herriko ikastetxeekin ere harremanetan jarri dira, eta zentroetan ere jasoko dute materiala abenduan. Gero, Ongi Etorri Errefuxiatuak elkartearen esku utziko dute dena. "Horiek dira Bilboko portuko auziaren gainean daudenak", esan du Amianok.

Hiruhilabeteko honetan errefuxiatuen gaia ari da lantzen Talde Aktibista. Aspaldi utzi zioten albistea izateari komunikabide handietan, nahiz eta arazoa bere horretan egon. "Kontsumorako produktuak eskaintzen dituzte komunikabideek; gaia bukatzen da, hedabideak orain ez daude Lesbosen, eta orduan existitzeari uzten diote", saladu du Amianok. Hain justu, arazoak bere horretan diraela aldarrikatu nahi du taldeak. "Hor daude oraindik, nahiz eta ez luketeen egon behar, eta haietaz hitz egin behar dugu".

Gai sozialak hizpide

Bestetik, ikuspuntu politikoa azalarazi nahi dute. "Estatuek konpromiso bat hartu zuten errefuxiatuak hartzeko, eta ez dute bete. Hori salatu beharra ikusi dugu, eta presio sozial hori eragin nahi genuen herrian", esan du Iparragirrek.

ERREFUXIATUAK ALBISTE IZATEARI UTZI DIOTE, BAINA GAIA AZALERATU DU TALDE AKTIBISTAK

Gai sozial "potoloen" inguruan hitz egiteko beharrak bultzatuta sortu zuten Talde Aktibista. "Batzuetan dirudi erakundeen edo eragile handien menpe daudela gai horiek, baina guk guztiok dugu erantzukizuna, denok egin dezakegu zerbait", diote taldekideek. Eztabaida horiek ekarri nahi dituzte herrira, "kontzientzia sortzeko".

Joan den astean Villa Mirentxun eztabaida bat antolatu zuten, Zaporeak taldeko Oraitz Garciarekin eta Ongi Etorri Errefuxiatuak elkarteko Xabi Areta eta Maider Agirrerekin. "Gai horiekin bertatik bertara lan egiten dutenak ekarri nahi genituen. Gaia plazaratu da, eta helburua bete da, eta harremanak saretzen hasi gara".

Hain zuzen, elkarlanerako lan tresna ere izan nahi du taldeak. Izan ere, kideen ustetan zenbaitetan gizarte eragileak isolatuta daude, eta kohesio falta dute. "Bakoitza bere borrokan sartuta dago, eta ez ditu besteak ezagutzen. Guk ere ez genekien Ongi Etorri Errefuxiatuak taldeko bi kide zeudela Lasarte-Orian".

NEURE KABUZ

NEREA SEGURA

Break-fast otordu arriskutsua!

Bi motatako pertsonak daude: goizean goiz jaikitzen direnak gosaltzeko; edo iratzargailua itzali eta beste 5 minutu lo egiten dutenak. Zu zeinetakoa zara?

Wikipediak dioenez, gosaria gaueko loalditik jaiki ondoren hartzen den lehen otordua da (gose+ari). Jatordurik garrantzitsuena al da? Ez! Egunero, kaloria eta mantenugai batzuk beharrezkoak dira. Osasungarriena haiek egunean zehar banatzea da, energia aldaketa zakarrak eragin gabe; hau da, erregulartasun gluzemikoa lortuz (bai, diabetikoak bezala). Horregatik, ordu asko hozkada probatu barik ez pasatzea aholkatzen da: 4-5 jatordu egitea. Baina otordu-gakoa da jardunaldia ondo hasteko: etekin fisikoa eta buru-konzentrazioa hobetzeko, umore aldarteak saihesteko, eta pisu igoerari erraxago aurre egiteko (beti ere, osasuntsua bada).

Zer gosaltzen duzu egunero? Erantzuna baldin badakizu, ziurrenik gaizki egiten duzu; edo gutxienez, errepikakorra da: colacao gailetekin; kafea, laranja-zukua eta integral-gailetak; goizero! Ez zaio behar adinako garrantzirik eman eta *breakfast*-a *fastfood* bihurtu da. Gosarirako hamaika produktu espezifiko daude, beharrezkoak ez direnak. Zerealak (krispiak) aspaldi dieta holistiko baten parte izateko sortu ziren, heste-osasuna hobetzeko; hala ere, salmenten *boom*-a azukrea gehitutakoan gertatu zen. Berdin, zuku eta gailetekin —eta ez dakit zer den okerrago: ez gosaltzea edo eguna azukre-gaindosiarekin hastea—. Gosari idealik ez dago, baina jaten duzunaren artean zenbat da janaria?

Larrialdietarako irteera izango du Biyak Bat zaharren etxeak

Lasarte-Oriako Udalak lokal bat erosi du Andapa kalean, Biyak Bat egoitzari larrialdietarako irteera jartzeko. "Beharrezko" azpiegitura dela azpimarratu dute udal teknikariek. Zaharren etxeko erdiko sototik izango dute sarbidea larrialdietarako irteerara.

Udalak jakitera eman duenez, 42.680 euroko kostua izan du lokalak, eta orain, erabilgarri izan dadin beharrezkoak diren obrak egin beharko dituzte. Horiek, egoitzan zenbait aldaketa egitera behartuko ditu; gizonezkoen ile apaindegia eta trastelekua, lekuz aldatu beharko dituzte, besteak beste.

"Pozez" hartu dute berria Biyak Bat egoitzako kideek, urteak egon baitira larrialdi irteera baten esperoan. Sotoan ekintza ugari egiten dituzte, eta larrialdi irteerarik ez edukitzea "arriskutsua" dela azpimarratu dute.

Orain, lanak amaitzeko denbora bat beharrezkoa izango dela kontutan hartuta, lehenbailen lokala prest egotea desio dute.

Lorea Agirre, Txema San Aniceto, Ione Artola, Jone Erro, Arantxa Urkizu, Pepi Aldazabal eta Asun Yarza taldekideak. TXINTXARRI

Dotore luzituko dira aurtengo abenduan

Urria eta azaroa josi eta josi igaro ostean, jantzi tradizionalen ikastoroko parte hartzaileek egindako lanak erakutsi dituzte. Trebezia handia erakutsi dute hari eta orratz artean, eta egindako jantziak luzitzeko garaia heldu zaie kurtsoa amaitzean

Maddi Noriega

Mimoz, deitale bat bera ere ahaztu gabe, egin dituzte aurtengo jantzi tradizional ikastaroko jantziak. Batzuk jostera ohituta dauden arren, badira hari eta josteko makina artean ohitura gutxiago dutenak ere, baina hori ez da inondik inora oztopo izan lan dotoreak egiteko. Gogo eta ilusioari heldu, eta jantzi ederrak eginda amaitu dute ikastaroa.

Urrian ekin zioten ikastaroari, eta astean bi egunez (asteartetan eta ostegunetan), arratsaldeko 15:30etik 17:30era aritu dira lan eta lan. Emakumeen Zentro Zibikoan elkartu dira jostunak, eta Ione Artola hezitzaileak azaldu duenez, fin aritu dira: "Harrotasunez esan dezaket, oso txukun aritu direla lanean, eta talde giroa ere oso ona izan dugu".

Parte hartzaileak ere oso gustura agertu dira, eta batek baino gehiagok nabarmendu du ikastaroa amaitzeak "pena" eman diola.

Garai batekoak eta oraingoak

Geroz eta jantzi tradizional koloretsuagoak ikusi ohi dira gaur egun. Orain urte batzuk, ilunagoak, puntu eta loredunak izaten ziren ohiko jantziak, baina gaur egun, denetarik ikus daitekeela azaldu dute ikastaroko parte hartzaileek. "Badira betiko jantziari telak gehitu eta itxura aldatzen diotenak, baita traje koloredunak egiten dituztenak ere".

Urtea hastearekin batera, *Titare*

Jantzi tradizionalen ikastaroa atzo amaitu zen, baina josten jarraitzeko aukera izango da 2018an ere.

Ttakun Kultur Elkarteak, urteroko *Titare* ikastaro iraunkorra martxan jarriko du urtarrilaren 12tik aurrera. Ostegunetan izango dira saioak, 15:30etik 17:30erako ordutegian, eta bertan parte hartu nahi duenak, izena eman beharko du, Ttakun Kultur Elkartean, 943 37 14 48 edota 695 78 53 89 telefono zenbakietan.

Jantzi Tradizionalen ikastaroan egindako lan guztiak ikusteko, ikus *txintxarri.eus* atariko galeria.

Bainika eta guzti, haurrentzako bi jantzi egin ditu ikastaroko parte hartzaile batek. TXINTXARRI

Hainbat jantzi pieza egin dituzte ikastaroan; gonak, zapiak, galtzak, gerruntzeak... TXINTXARRI

Gizonezkoentzako jantziak egin dituenik ere izan da. Irudiotan egindako lan bat. TXINTXARRI

Detaile guztiak izan dituzte kontuan jostunek jantziak egiterako orduan. TXINTXARRI

Musika eta Eguberrietako ekintzak, kultur agendan

Musika, zinea, Jalguneren jaialdia, diaporama historikoa eta Eguberrietako ekintzak izango dira nagusi abenduko kultur agendan. Maite Iglesias Kultura zinegotziak eta Iker Tolosa Manuel Lekuonako kudeatzaile berriak aurkeztu dute egitarau oparoa

Nerea Eizagirre

Okendo Zinema taldeak gidatzen duen zine forumak emango dio hasiera hilabeteari. Abenduaren 1ean, *Pasaiako Badia* dokumentala eskainiko dute. Abenduaren 15ean, Cannesko Urrezko Palma eskuratu duen *The Square* filma ikusi ahalko da, eta abenduaren 28an, azkenik, *50 primaveras* filma izango da.

Animaziozko bi filmez gozatu ahalko dute haurrek hilabete honetan: abenduaren 3an, *Hurrak eta lapurrak 2 ;* eta abenduaren 17an, *Deep*. Helduen zinea atalari dagokionez ere bi film izango dira: abenduaren 3an, *La batalla de los sexos* filma eta abenduaren 17an, *Canción de Nueva York*.

Iker Tolosa eta Maite Iglesias abenduako kultur agendako aurkezpenean. TXINTXARRI

Musika

Bestalde, Eguberrietako giroa aste bete aurreratuko da Lasarte-Orian. Alboka Abesbatzak eta Oiartzungo Lartaun abesbatzen ahotsetan nazioarteko Eguberri doinuak entzungo dira abenduaren 17an Ama Brigitarren komentuan.

Abenduaren 20an, Udal Musika eskolako ikasle eta irakasleen txanda izango da Manuel Lekuonan. Eguberrietako abestiak eta doinu klasikoak eskainiko dituzte.

Danok Kide elkarteak antolatzen dituen Musika Topaketen hitzordu berria ere izango da, abenduaren 22an. Ana Garcia organo joleak eta Amaia Arberas sopranoak "kalitate handiko" emanaldia eskainiko dute.

Abenduaren 27an, aldiz, Ane Arteche harpa-jotzailearen trebetasunaz gozatu ahalko da. Eta azken urteko arrakasta ikusirik, Gospel kontzertua ere izango da abenduaren 29an.

Jaiak

Eguberrietako aurrekari izango da ere San Tomas azoka. Abenduaren 21eko arratsaldean Okendo plazan postuak, haurrentzako tailerrak, musika eta txerria izango dira.

Eguberrietako parkeak abenduaren 22an irekiko ditu ateak eta abenduaren 31ra arte izango da martxan.

Abenduaren 24an, Olentzero, Mari Domingi eta Xixuko izango dira Lasarte-Oriako kaleetan. Okendo plazan etorrera jaialdia egin eta haurren eskutitzak jasoko dituzte.

Baina hori guztiaz gain, izango da besterik.

Jalgune elkartearen *Lasarte-Orian gai gara* jaialdian abenduaren 2an, Lasarte-Oriako hainbat elkarte izango dira. "Sarrera behar da eta dagoeneko agortu dira".

Abenduaren 12an, ipuin kontalarien azken saioa izango da. Kontu Kantoiko lagunen eskutik, 6 eta 8 urteko gaztetxoek ipuin ezberdinak ezagutuko dituzte.

Azkenik, Lasarte-Oriako kirola izango da protagonista abenduaren 16an. Zero Sette akordeoi taldearen doinuez lagunduta diaporama historikoaz gozatu ahalko da. "*Gogoratzen duguna gara* diaporamak arrakasta handia izan zuen eta herritarrek Lasarte-Oriaren historia diaporama bidez ezagutzea ideia ona dela aipatu ziguten".

TXINTXARRI

Indarkeria matxistaren aurka

Indarkeria matxista ikustarazteko ekintzak egin dituzte Lasarte-Orian asteburuan, Makelur taldearen antzerkia edo igandeko *Una mujer perfecta* filma, esate baterako. Larunbatean, emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioarteko egunean, hainbat lasarteoriatar elkartu dira Okendo plazan, indarkeria mota hori arbuiatzeko. Udal korporazioko zenbait alderditako kideak ere batu dira kontzentraziora.

Bide sareko garbiketa zerbitzua kontratatzea onartu du udal taldeak

Azaroaren 14ko udalbatzarreko gaia izan zen bide sareko garbiketen zerbitzuaren kontratazioa. EAJren eskakizunari erantzunez ordea, mahai gainean geratu zen, eta iragan asteko ostiralean bozkatu zen, ez-ohiko udalbatzarrean.

Horrela, PSEren eta EAJren aldeko bederatzi bozka zenbatuta, onartua geratu da Lasarte-Oriako udal bide sareko garbiketa zerbitzuaren kontratazioa. EH Bildu (bi boto) eta ADLOP (bi boto) abstenitu egin dira.

EAJ batzordean abstenitu egin bazen ere, ez ohiko udalbatzarrean aldeko botoa eman zuen. "Ekarpenak egin dira" eta horiekin ados daudela argudiatuta eman dute aldeko botoa.

PPk salatu du kirol gune berria bideraezina dela

PPk Jesus Zaballos alkateari negoziaketarako "gaitasun eza" egotzi dio Atsobakarreko kirol gune berriaren aferan. "Ezin da proiektu bat errealitate bezala aurkeztu, garatu ahal den jakin gabe, are gutxiago kanpoko eragile baten menpe badago. Ezin zaio erru guztia Usurbilgo alkateari egotzi. Hasieratik gaia azaldu eta erantzunaren ostean, nola jokatu aztertu behar zen".

Alex Saenzen hitzetan: "Herritarrak harmailarik gabeko edo harmailak dituen futbol zelairik eta atletismo pistarik gabe utziko gaitu. Orain arte proiektua ordaintzeko erabili den dirurik gabe ere geratuko gara, nahiz eta, alkateren hitzetan, proiektua bideraezina izan".

Zapi, amantal eta abarka

Euskal Jai asteburu alaia ospatu dute larunbatean, Lasarte-Orian

Kantu dantza jirako parte hartzaileak herriko zenbait txokotan aritu dira dantzan eta kantuan. TXINTXARRI

Herriko txistulari taldea lasarteoriatarrak esnatu nahiean, goizeko dianan. TXINTXARRI

Paella prestatu dute Xabier Zaldua eta Xabier Otaegik. Irudiotan, sukaldarien laguntzaileak zerbitzatzen. TXINTXARRI

Bazkaldu aurretik, musikariek lagunduta, dantzan eta kantuan ere aritu dira herritarrak. TXINTXARRI



Bazkaldu eta gero, Xumelak emanaldi laburra eskaini du. TXINTXARRI

Barrerako eta gozamenerako tarte ederra izan da Intza Alkainen bakarrizketa. TXINTXARRI

Txistulariak arduratu dira Lasarte-Oria esnatzeaz. 10:00ak pasatxo ekin diote txistuak eta danbolina jotzeari: herriko erdiguneko hainbat kale zeharkatu dituzte, plazara itzuli aurretik. Goizetik etengabe bota eta bota aritu duen euriak atseden hartu, eta hori baliatu dute Xumela abesbatzako kideek kantu jirari ekiteko. Andatza plazan elkartu dira, eta bertan astindu dituzte gorputzak aurrenekoz. Gero, Jaizkibel enparantzara joan dira, handik jaitsi eta Kale Nagusia zeharkatzeko. Ur-tantak orduan hasi dira zerutik jausten berriro, baina ordurako motorrak bero-bero eta aterkiak zabal-zabalik dituztela, Sagardotegi plazaraino iritsi dira.

Loidibarrenera iritsi ahala, herritarren urdailak hotsak ateratzen hasi dira. Gosea pizten duen usain horietako bat dago eta: arroz paellarena. Eseri eta berehala hasi dira zerbitzari boluntarioak arrozez eta oilaskoz betetako platerak ekartzen. Edateko, nahi adina sagardo, ardo edo ur fresko. Ehundik gora jankide elkartu dira pilotalekuan.

Bazkalostean, Xumela, Zarauzko Montetxio eta Hondarribiko Olagarro abesbatzak aritu dira oholtza gainean, elkarrekin. Gero, Intza Alkain gazteak barre-algaraka jarri ditu ikus-entzule guztiak bere okurrentzia umoretsuekin.

Eguna biribiltzeko, dantzan aritu dira herritar ugari, gustura. Ttirriki Ttarrakako kideek jarri dituzte doinuak, Ixak Arruti gitarra-jotzailearen eta Jokin Irastorza bateria-jotzailearen laguntzarekin.

Bukatzeko, *Oaintxe in deu!* txarangarekin batera, herriko tabernetatik ibili dira lasarteoriatarrak, poteoan. Inor ez da eguraldi txarraz akordatzen ordurako. Euriak ezin izan du jaia zapuztu.

Urtero moduan, Josu Ostolaza eta Beñat Telleria harrijasotzaileek hainbat harri jasotze egin dituzte. TXINTXARRI

Herritar ugari aritu dira Ttirriki Ttarrakakoen doinuekin batera dantzan, Loidibarren pilotalekuan. TXINTXARRI

Ttirriki Ttarrakako bi musikari erromeriaren unean, kantari. TXINTXARRI

Egunarekin amaitzeko, txaranga-poteoa egin dute herriko zenbait tabernetan barrena. TXINTXARRI

Sari banaketa eta gero, talde argazki erraldoia atera dute amaieran. TXEMA VALLES

Paperean dauden hitzei sariak

Herritarrek hitzaldi aretoa bete zuten. TXINTXARRI

Nahikoa lan izan dute epaimahaikideek aurtengo Lasarte-Oriako Literatur Lehiaketako irabazleak zeintzuk diren erabakitzeko: 393 lan aurkeztu dira denera, kategoria guztietan, euskaraz eta gaztelaniaz. Euskarazko gazteen lehiaketak izan du parte hartzaile gehien: 217 idazlan jaso dituzte. Larunbatean eman zituzten sariak

Txintxarri

Manuel Lekuona kultur etxeko hitzaldi aretoa txiki geratu da. Ikusmin handia sortu du aurtengo Literatur Lehiaketako sari banaketak. Jesus Zaballos alkateak eta Maite Iglesias Kultura zinegotziak banatu dituzte sariak. Kultur etxeko kudeatzaile berriak, Iker Tolosak, aurkeztu du ekitaldia.

Diplomak banatzen hasi aurretik, sarituetako lan batzuk errezitatu ditu Aitor Tejedorrek. Ivan Morenok lagundu dio, gitarrarekin.

Lasarteoriatarrak izan dira nagusi helduen mailako mikrokontakizunetan. Euskarazko kategorian Julen Basterra eta Unai Altuna izan dira sari nagusia eskuratu dutenak. Gaztelerazkoan, aldiz, A mailan Ainara Ruizek eskuratu du sari nagusia eta Lourdes Palaciosek B mailako Lasarte-Oria saria.

Poesiari dagokionez, Julen Basterrak euskarazko mailako Lasarte-Oria saria poltsikoratu du.

Bukaeran, urtero legez, talde argazki erraldoia atera dute saritu guztiek.

Lan gehienak, euskaraz

Euskaraz, guztira, 250 idazlan aurkeztu dira aurten. Etxeko gazteenek bidali dituzte lan gehien: 217. Horietatik gehienak 2005 eta 2007 urteen artean jaiotakoen kategoriakoak dira: 154. 2008koak edo oraindik gazteagoak direnek ere askatu dute irudimena, epaimahaikideei 50 kontakizun bidalita.

EUSKARAZ 250 IDAZLAN AURKEZTU DIRA. ETXEKO TXIKIEK BIDALI DITUZTE LAN GEHIEN

Helduen kategorian, aldiz, mikrokontakizunak idazteko hautua egin dute gehienek, eta 21 sortu dituzte. Poesia kategoriako epaimahaira, berriz, hamabi idazlan iritsi dira.

Gaztelerazko kategoriako epaileek ere bota dute izerdia: 143 sorkuntza lan bidali dituzte idazleek. Gazteen lehiaketara aurkeztu dira gehienak: 124. Helduen kasuan, 49 izan dira idatzitako testuak.

Euskarazko eta gaztelerazko gazteen lehiaketak alderatuta, lan gehiago aurkeztu dira euskaraz: 217 eta 143, hurrenez hurren. Helduen kasuan, ordea, aurkakoa gertatu da: gehiagok egin dute gazteleraz idazteko hautua: 49 eta 33 idazlan, hurrenez hurren.

XXXI. Literatura Lehiaketa

Euskaraz aurkeztu diren lanen artean hauek dira sarituak:

Poesia
Sari nagusia
- Mikel Arruabarrena Larrarte. Lana: *Hezurdurak*.

Lasarte-Oria saria
- Julen Basterra Garmendia. Lana: *Jainkoa eta Egoa*.

Mikrokontakizunak
A kategoria, 1987. eta 2001. urteen artean jaiotakoak
Sari nagusia
- Julen Basterra Garmendia. Lana: *Nire kontzientziari ipini nion izena*.

B kategoria, 1987. urtea baino lehen jaiotakoak
Sari nagusia
- Unai Altuna Etxeberria. Lana: *Gurpilak*.

Gazteleraz aurkeztu diren lanen artean hauek dira sarituak:

Poesia
Sari nagusia
- Nadia Fabo Andres. Lana: *Amorsexoamor y algo de literaturapasión* (Maitasunasexuamaitasuna eta pasioliteratura apur bat)

Mikrokontakizunak
A kategoria, 1987. eta 2001. urteen artean jaiotakoak
Sari nagusia
- Ainara Ruiz Donis. Lana: *El reflejo de Nahyid* (Nahyid-en islada).

B kategoria, 1987. urtea baino lehen jaiotakoak
Lasarte-Oria saria
- Lourdes Palacios Martin. Lana: *Pochete*.

"Poesiak bide bat ematen du egia esateko"

JULEN BASTERRA GARMENDIA LITERATURA LEHIAKETAKO SARIDUNA

Basterraren bi obra saritu ditu epaimahaiak: 'Jainkoa eta Egoa' poesia eta 'Nire kontzientziari ipini nion izena' mikrokontakizuna. Ideiak askatzeko tresna du poesia

Julen Basterra. TXINTXARRI

Adrian Garcia

Noizean behinka idazten du Julen Basterrak (Lasarte-Oria, 1993), "beharra" sentitzen duenean. "Bat-batean etortzen zait. Ez dut idazten helburu batekin. Idaztea bera da helburua". Terapia moduan erabiltzen du literatura: "Batzuetan lasaitu egiten nau, batzuetan atsegina ematen dit, batzuetan animatu egiten nau, batzuetan askatu". Aurretik irabazia zuen Lasarte-Oriako Haurrentzako Literatura saria, eta aurte ere parte hartzea erabaki du. Bi sari irabazi ditu: poesiarena eta mikroipuinarena.

Jainkoa eta Egoa izena du saritutako poesiak. Zer adierazi nahi izan duzu?

Gatazka bat adierazi nahi nuen. Kontrakoak diren bi ideia. Jainkoa kontzeptu korapilatsua da, definizio asko eman baitira hari buruz. Jainkoa zentzu panteistan ulertzen dut nik. Alegia, dena da Jainkoa. Hori da gizakiaren hasierako abiapuntua. Nik Jainko bezala ulertzen dut natura. Baina gizartean, gure inguruak eta aurreiritziek, pentsamenduek azken finean, gatazka sortzen dute. Eta ez gara konturatzen egoera horretan gaudela. Egoak ere sortzen du gatazka hori. Jainkoa eta Egoa nahi ditut kontrajarri. Egoa gatazka sortzaile bezala; pentsamenduaren bidez sortzen du gatazka bat: gizakiaren berezko izatea desbideratzen du eta batasuna hausten.

"Hasiera-hasieran zer ginen? Bakea ederra zen unean, ezertxo ere ez", diozu. Egorik gabe bakean bizi ginen?

Ez genuenean pentsatzen, ez geniekeenean egoa ginenik, hau da, ez dakigunean Adrian, Julen... garela, bakea ederra da. Zentzu horretan, ez ginen ezer. Bagara zerbait, baina ez dugu pentsatzen garen horri buruz, horregatik dago bakea.

Berri Txarrak taldeari ere erreferentzia egiten diozu poesian.

Bai, izenak ematen digu izana, eta nahi dugu izan gure izenaren arabera. Baina hasieran ez genuen izenik; orduan hor ezina sortzen da.

Oteiza ere aipatzen duzu.

Berak poesia liburu bat du *Existe Dios al noroeste* [Jainkoa existitzen da ipar-mendebaldean]. Zergatik koordenatu hori? Ipar-mendebaldea bihotzean dago. Zergatik? Hor daukagulako indar immanente hori. Baina, azken finean, bihotza ere metafora bat da. Gure berezko izatea adierazteko modu bat.

Iparrorratz bati buruz ere hitz egiten duzu.

Teknologia adierazi nahi dut iparrorratzarekin. Iparra non dagoen esaten dizu, baina zuk barruan indar hori baduzu, bihotza, eta ez duzu behar iparrorratzik. Eta teknologiarekin berdin. Barruan baduzu indarra, ez duzu izatez haren beharrik.

Poesiaz gain, mikrokontakizun saria ere irabazi duzu, _Nire kontzientziari ipini nion izena_ obrarekin.

Niri buruzkoa da. Baina, aldi berean, saiatu nintzen pentsatzen zer pentsatzen zuen jende guztiak. Nire kontzientziari ipini nion izena da, baina uste dut jende askorena ere badela. Aipatzen ditut infinitua eta ezereza, gure kontzientzia bi eremu horien artean dagoen espazioa delako. Edo infinitura goaz, aurrera goaz, bizitzara goaz... Kontakizunean, itsasoa bezala definitzen dut. Edo, bestela, amildegira goaz, ezerezera. Gure kontzientzia horren artean dago: bizitzeko bulkada amaigabe baten eta hiltzeko nahi amaigabe baten artean. Eta gu hor bizi gara. Momentu batzuetan oreka galtzen dugu, eta amildegira edo itsaso aldera goaz. Horregatik aipatzen dut orekaren beharra. Egunerokotasunari aurre egiteko behar duzu oreka.

Zer esan nahi du sari honek zuretzako?

Sariak ez zaizkit gustatzen, baina aitorpen sozial bat egotea ondo iruditzen zait, barruan daukazun hori esan izana saritzea. Egia saritu egin behar da, eta poesia bide bat da egia esateko.

Haur eta Gazteen XXX. Literatura Lehiaketa

Euskaraz aurkeztu diren lanen artean hauek dira sarituak:

A KATEGORIA (2008an jaiotakoak, edo gazteagoak)
Ipuinak
- **1go saria:** Gari Iraola Hernandez.
  Lana: *Gari alea*.
- **2. saria:** Katixa Ruiz *Zamarreño*.
  Lana: Ainhoaren bidaia.
- **3. saria:** Unax Esnaola Fernandez.
  Lana: *Txin Txan mamua*.

B KATEGORIA (2005 eta 2007 urteen artean jaiotakoak)
Ipuinak
- **1go saria:** Nikola Iraola Hernandez.
  Lana: *Mike*.
- **2. saria:** Iker Lizaso Lebron.
  Lana: *Berezienea*.
- **3. saria:** Añes Apaolaza Negueruela.
  Lana: *Orbel jauna*.

D KATEGORIA (2002 eta 2004 artean jaiotakoak)
Ipuinak
- **1go saria:** Maren Urkizu Urruzola.
  Lana: *Gaueko akordeak*.
- **2. saria:** Uxue Odriozola Zarauz.
  Lana: *Nire iragan zatarra aldatu nahiko nuke*.
- **3. saria:** Lide Hidalgo Negredo.
  Lana: *Nola edo noiz?*

Poesia
- **1go saria:** Olatz Castro Jauregi.
  Lana: *Haizea, ura, lurra, harria eta ametsak*.
- **2. saria:** Nahia Fabian Martinez.
  Lana: Gure istorioa.
- **3. saria:** Uxue Odriozola Zarautz.
  Lana: Alboan behar zaitut.

Gazteleraz aurkeztu diren lanen artean hauek dira sarituak:

A KATEGORIA (2008an jaiotakoak, edo oraindik gazteagoak)
Ipuinak
- **1go saria:** Enara Arruti Manterola.
  Lana: Marchelino.
- **2. saria:** Eneko Sanchez Martinez.
  Lana: Minilandia.
- **3. saria:** Alba Gurruchaga Alvarez.
  Lana: La increible historia de Jake (Jake-ren istorio harrigarria).

B KATEGORIA (2005 eta 2007 artean jaiotakoak)
- **1go saria:** Itziar Aranzabe Sanchez.
  Lana: *Bajo los mares de Venecia* (Veneziako itsasoen azpian).
- **2. saria:** Amaia Mazkiaran Gaztelumendi.
  Lana: *El ladrón del Louvre* (Louvre museoko lapurra).
- **3. saria:** Irati Mazkiaran Gaztelumendi.
  Lana: *Pesadillas* (Amesgaiztoak).

D KATEGORIA (2002 eta 2004 artean jaiotakoak)
Ipuinak
- **1go saria:** Julene Iraola Hernandez.
  Lana: *Un reloj muy largo* (Erloju oso luze bat).
- **2. saria:** Nora Hernandez Montalvo.
  Lana: *La muñeca* (Panpina).
- **3. saria:** Elsa Garcia Rodriguez.
  Lana: *Unas vacaciones de ensueño* (Amestutako oporraldia).

Poesia
- **1go saria:** Julene Iraola Hernandez.
  Lana: *No te olvidaré* (Ez zaitut ahaztuko).
- **2. saria:** Lide Hidalgo Negredo.
  Lana: *Estoy en la edad* (Nire momentua da).
- **3. saria:** Nahia Calle Muñoa.
  Lana: *Yo soy así* (Horrelakoa naiz ni).

Martin ahizpak, igerilari onenen arrastoan

Leire eta Ainhoa Martin Buruntzaldea IKTko igerilariak Espainiako absolutu txapelketan parte hartu dute, Bartzelonan, goi mailako igerilariekin batera. Nahia Zudairek lehen aldiz lehiatuko du nazioarteko txapelketa batean, asteburu honetan

Adrian Garcia

"Ez da ohikoa, baina ez da horren arraroa ere". Borja Apeztegia Buruntzaldea IKTko entrenatzaileak neurrian jarri ditu bere igerilarien lorpenak. Leire eta Ainhoa Martin ahizpak infantilak dira, baina Espainiako Txapelketa absolutuan lehiatzeko gutxieneko marka lortuta, Bartzelonan izan ziren joan den asteburuan. Lasarte-Oriako igerilariei esperientzia pilatzeko eta ikasteko baliagarria izan zaie txapelketa, baina ez da haien helburu nagusia. "Mireia Belmonte eta beste igerilari olinpiarrekin batera egoteko aukera izan dute, haiek ere lehiaketa berean sentitu dira".

Maila altuko txapelketa izanagatik, ongi ibili dira Martin ahizpak, eta zenbait marka hautsita itzuli dira herrira. Ainhoa 200 metro bularrean aritu da, eta taldeko absolutu mailako denbora onena lortu du, marka pertsonala ontzeaz gainera (2:37,51). Leire ere primeran aritu da, eta 400 metro estiloetan Euskadiko marka eta berea hautsi ditu, 5:01,09 denborarekin. Haien maila erakutsi arren, absoluto maila oraindik gogorregia da haientzat: 20. postutik behera sailkatu dira. Horregatik, garrantzitsua da entrenatzailearen lana: "Beraiek bazekiten hori, eta lasai ibili dira. Helburu nagusia Neguko Espainiako Txapelketa dute". Eguberrietan Euskadiko selekzioarekin arituko dira biak.

Hirugarren jardunaldia

Ahizpek igerilekuz aldatuko dute asteburu honetan, Lasarte-Orian jokatuko den hirugarren jardunaldian arituko baitira. Hernani, Tolosaldea, Igartza, Ordizia eta Donostiako Konporta eta Fortuna lehiatuko dira Maialen Chourraut kiroldegian. "Garrantzitsuak dira jardunaldi hauek, baina ez daukate txapelketa handien presio hori", azaldu du Apeztegiak. Neguko liga aproposa dute igerilariek lehiaketaren martxa hartzen joateko. Gipuzkoako Kluben Kopa prestatzeko egokia zaie. Apeztegiak begiz jota du txapelketa hori: "Oso polita da. Taldeka egiten da, igerilari bakoitzak puntuak lortzen ditu, eta gero batu egiten dira". Azken zazpi-zortzi urteetan Buruntzaldea IKT podiumera igo da, eta aurten ere, "zailagoa" izan arren, helburu berbera du.

Nahia Zudaire, Portugalen

Asteburu berezia izango da Buruntzaldea IKTrentzat, baina ez bakarrik Lasarte-Orian egingo delako ligako jardunaldia. Nahia Zudaire igerilariak lehen nazioarteko lehiaketa jokatuko du: 2017ko IWAS World Games txapelketa, Espainiako Igeriketa Egokituko Selekzioarekin. Portugalen, Vila Real de Santo Antonion izango da abenduaren 2tik 5era, eta 100, 200 eta 400 metro librean eta 50 metro tximeletan lehiatuko du.

Leire Martin, Bartzelonan, bizkar proban parte hartzeko prest. BURUNTZALDEA IKT

Nahia Zudairek Portugalen lehiatuko du asteburu honetan. TXINTXARRI

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

ERREGIONAL PREFERENTEA

Ostadar SKT - Euskalduna
Larunbata. 17:00. Michelinen.

JUBENILEN OHOREZKO MAILA

Billabona KE - Ostadar SKT
Larunbata. 17:00. Billabonan.

KADETEEN OHOREZKO MAILA

Ostadar SKT - Euskalduna
Larunbata. 14:00. Michelinen.

KADETEEN LEHENENGO MAILA

Ostadar SKT - Euskalduna
Igandea. 09:45. Michelinen.

INFANTIL TXIKIAK

Ostadar SKT - Hondarribia FE
Igandea. 11:15. Michelinen.

LURRALDE MAILA

Intxaurdi KE - Ostadar SKT
Larunbata. 12:30. Cesar Benito zelaian, Donostian.

IBERDROLA LIGA

Reala - Zaragoza
Igandea. 18:30. Zubietan.

EMAKUMEZKOEN 2. MAILA

Añorga KKE - Alaves
Igandea. 17:00. Añorgan.

EMAKUMEZKOEN 2. MAILA

Athletic - Aurrera Vitoria
Igandea. 12:15. Lezaman.

ARETO FUTBOLA

ESTATUKO HIRUGARREN MAILA

Aretxabaleta - Antonio Aroztegia Eguzki
Larunbata. 12:00. Aretxabaletan.

GIPUZKOAKO LEHENENGO MAILA

Iurre Taberna Tolargi - Isu Leihoak Eguzki
Ostirala. 21:30. Tolosan.

GIPUZKOAKO BIGARREN MAILA

Cecilia Frutadenda Eguzki - Power Rangers KE
Ostirala. 20:50. Kiroldegian.

SENIOR GIPUZKOAKO LIGA

Lauburu Ibarra - Trumoi Taberna Eguzki
Larunbata. 17:00. Ibarran.

JUBENILEN GIPUZKOAKO LIGA

Bar Lasarte - Anoeta FT
Igandea. 11:00. Kiroldegian.

KADETEEN GIPUZKOAKO LIGA

Balerdi Harategia - Summa Aldapeta
Larunbata. 10:45. Kiroldegian.

SASKIBALOIA

SENIOR LEHENENGO MAILA

Ayma Goierri- Ostadar SKT
Igandea. 12:15. Urretxun.

SENIOR HIRUGARREN MAILA

Zarautz Zast - Ostadar SKT
Larunbata. 18:00. Zarautzen.

ERRENDIMENDU JUNIORRAK

Cafes Aitona Askatuak - Ostadar SKT
Larunbata. 20:00. Donostian.

PARTIZIPAZIO JUNIORRAK

Oiartzungo Saskilagunak - Ostadar SKT
Larunbata. 12:15. Oiartzunen.

ERRENDIMENDU KADETEAK

Zast Zarautz - Ostadar SKT
Igandea. 16:00. Zarautzen.

PARTIZIPAZIO KADETEAK

Bera Bera Gros - Ostadar SKT
Igandea. 10:00. Donostian.

PILOTA

PROFESIONALAK

Agirre - Ibaizabal
Arteaga II - Erasun
Larunbata. 17:00. Lizarran.

ERRUGBIA

OHOREZKO B MAILA

El Salvador RC - Babyauto Zarautz KE
Larunbata. 16:30. Valladoliden.

EUSKAL LIGA

Babyauto Zarautz KE/ Beltzak RT - Arratiko Zekorrak
Larunbata. 15:40. Michelinen.

IGERIKETA

ALEBINAK

Ligako 3. jardunaldia
Larunbata. 16:00. Hernanin.

INFANTILAK, JUNIORRAK ETA ABSOLUTUAK

Ligako 3. jardunaldia
Larunbata. 16:00. Maialen Chourraut kiroldegian.

2017 IWAS WORLD GAMES

Nahia Zudaire Buruntzaldea IKTko igerilariak Portugalen lehiatuko du Espainiako selekzioarekin, 100, 200, 400 metro librean eta 50 metro tximeletan.
Abenduaren 2tik 5era bitartean, Vila Real de Santo Antonion, Portugalen.

Aritz Solanok lan ederra egin zuen atzealdean. Defentsa lanetan ere fin ibili zen. TXINTXARRI

Urrats bat gehiago besterik ez

Intxurreren aurkako neurketa garrantzitsua merezimendu osoz irabazi du Intza KEk, eta eskuz binakako Gipuzkoako 2. mailara igotzeko lehiatuko dira Haritz Urkia eta Aritz Solano. Promozioko finalerako sailkatuz gero, zuzenean igoko lirateke

Iñigo Gonzalez

Michelingo frontoiko ezker hormatik albiste onak besterik ez datoz azkenaldian. Gipuzkoako Lehenengo Mailari eustea lortu zuten Jon Pello Artetxek eta Mikel Elolak duela aste batzuk. Asteburuan, berriz, Hirugarren Mailan ari diren Haritz Urkiak eta Aritz Solanok mailaz igotzeko lehian aritzeko txartela poltsikoratu dute. Honezkero oso onak dira berriak, baina are hobeak izan daitezke, falta zaizkien pausoa eman eta balentria egiten badute.

Errazak ziren kalkuluak: irabaziz gero, 2. maila igotzeko promozioa jokatzeko txartela, poltsikora. Bide motzena, hori. Zailena, ere bai: Intxurrerekin neurtu zituen indarrak Intzak. Sailkapenaren goialdean berdinduta iritsi ziren bi taldeak Michelingo neurketa erabakigarrira.

Hobeto ekin zion neurketari Intxurreko bikoteak, eta 5-2 aurreratu zen; partida osoan izango zuen errenta handiena. Izan ere, Urkia min egiten hasi zen sake zitalekin, eta Solanok iristen zitzaion guztia bueltatu bakarrik ez, hainbat tantotan Intxurre taldeko atzelaria baino gehiago izan zen. Gauzak horrela, 0-9ko partziala sartuta, herritarrak 5-11 aurreratu ziren. Partida erdia poltsikoan zuten.

Pilotakada on asko

Bazirudien pilotari lasarteoriatarrek aise irabaziko zutela neurketa, argi uzten ari zirelako Intxurrekoak baino gehiago zirela.

Dena dela, zenbait huts ere egin zituzten, eta horrek ahalbidetu zuen Intxurre neurketan sartuta egotea. Baina Urkiak eta Solanok ez zioten garaipenari ihes egiten utzi.

Azpimarratzekoa da Aritz Solanok atzealdean egindako lana. Sendo aritu zen, ia hutsik egin gabe, eta hainbat tanto menderatzen. Defentsa lanetan ere ederki ibili zen, adi, Urkiari esku bat noiz bota behar zion ongi irakurriz. Intxurrekoek ez zuten eduki pilota garbirik tantoa bukatzeko, eta, hein batean, Solanok egindako lanak eragin zuen hori.

URKIAK ETA SOLANOK 2. MAILAKO PROMOZIOA JOKATZEKO TXARTELA ESKURATU DUTE

Urkiak tanto bikainak egin zituen, baina erremate garbiren bat ere bota zuen txapa azpira. Primerako sakeak egin zituen, arerioen huts egite dezente eraginez, eta bukatzeko garbiak izan zituen hainbat pilota bihurtu zituen tanto: ezker gantxoak, dejadak txokoan...

Azkenean, herritarrek 15-22 irabazi zuten, eta, hasieran nabarmendu bezala, Bigarren Mailara igotzeko promozioa jokatuko dute. Finalerdietan ariko dira aurrena, eta, irabaztekotan, final handia jokatuko dute.

Asteburuko partidak

Ezker Hormako Txapelketako bukatu dute dagoeneko. Asteburuan ziren jokatzekoak, baina Intxurre 3 taldeak ez aurkeztea erabaki du, eta ez da partidarik egongo.

Bestalde, trinketako txapelketa hasiko dute Intzako banakako pilotariek. Lehenengo Mailan, Aritz Solanok Behar Zana taldeko Maizen aurka jokatuko du. Gaizka Iruretagoiena, berriz, Bigarren Mailan arituko da.

Olmos, Sagasti eta Balda, Euskadiko txapelketan eskuratutako dominekin. LOKE JUDO

Zilarrezko bi domina eta brontzezko bat Euskadikoan

Asier Sagastik, Josu Olmosek eta Fermin Baldak lan ona egin dute Gasteizen jokatu den senior txapelketan

Txintxarri

Asier Sagasti, Josu Olmos eta Fermin Balda judokak Gasteizen jokatu den Euskadiko senior txapelketan lehiatu dira igandean, eta hirurek dominak ekarri dituzte etxera. Sagastik eta Olmosek zilarrezko domina, eta Baldak brontzezkoa. Oso pozik eta gustura agertu da Gorka Aristegi entrenatzailea judokek lortutako emaitzekin.

Josu Olmosek finalean Donostia Klubeko judoka baten aurka ezin izan du ezer egin. "Ez genuen ezagutzen, eta oso ona da. Ligaxkan ere garaitu zuen", adierazi du Aristegik.

Sagastik, berriz, finalaurrekoan erraz irabazi du, eta Gipuzkoako Txapelketan bezala, Peio Cazorla izan du arerio finalean. Oraingoan, errenteriarra izan da garaile. "Finalera lasai iritsi da Asier; arerioa aurreko asteko emaitzari buelta emateko gogoz zegoen". Azkenik, Ferminek bi borroka irabazi eta finalaurrekoa galdu du.

Espainiako txapelketarik ez

LOKEko entrenatzaileak azaldu duenez, lehiaketa egutegian aldaketak egin dituzte, eta aurten ez da Espainiako txapelketarik jokatuko, 2018ko abenduan izango baita. "Hurrengo urtean, apirila edo maiatzean, berriro ere Euskadiko txapelketa jokatuko da, eta orduan, Espainiako txapelketako txartelak izango dira jokoan".

Hala ere, Sagastik abenduaren 16an, Madrilen jokatuko den kopan parte hartuko du. Josu Olmos eta Esteban Martinez ere bertan izatea espero du Aristegik.

Bestalde, asteburu honetan, Eneko Eizagirre junior mailako Euskadiko selekzioarekin izango da Gijonen lehian ,eta abenduaren 17an, alebinek Gipuzkoako txapelketa izango dute.

Eguraldiak ez du errugbi arratsaldea zapuztu

Lasarte-Oriako Michelin kirol gunean errugbiaz gozatzeko aukera izan da larunbatean. Eguraldiari aurre eginez, Euskal Ligako hiru partida jokatu dituzte, eta hainbat mailatako herritarrak lanean ikusteko aukera izan da. Babyauto Beltzak taldeko jokalariek ez dute huts egin, eta hiru norgehiagokak irabazi dituzte.

18 urte eta 16 urte azpiko partidak izan dira lehenik. Bi taldeek Gernikaren aurka jokatu dute.

16 urte azpikoek partida hasieratik haien nagusitasuna erakutsi dute, eta hutsean utzi dute arerioa (74-0). 18 urte azpikoak ere ederki jokatu dute, eta garaipena erdietsi dute (59-14). Azkenik, Babyauto Beltzak seniorren bigarren taldea izan da. Nahiz eta hasieran Elorrio aurreratu, Babyautok buelta eman zion partidari eta 42-10 gailendu da.

Anabel Eleno eta Javi Olazagoitia, lasterketaren une batean. JOSEBA IPARRAGIRRE

Juarez familiako korrikalariak, lasterketa amaitu ostean. JUAREZ

Adiskidetasun maratoia, kilometroz kilometro

Herriko hemeretzi korrikalari helmugaratu dira Donostiako Maratoian. Kasu askotan talde lana berebizikoa izan da balentria osatzeko: Juarez sendiako lau kidek amaitu dute proba. Anabel Elenok hirugarren egin du, Olazagutiaren laguntzarekin

Adrian Garcia

Urte guztia eman dute data horren esperoan. Baina entrenamendu luze eta sakrifizio askoren ordaina jaso zuten joan den igandean: Lasarte-Oriako hemeretzi herritarrek gurutzatu zuten Donostiako estadioko helmuga, maratoiaren 42.195 metroak osatuta. Batzuk adiskideek lagunduta egin zuten lasterketa. Beste batzuk, ordea, familian. Edonola ere, talde lanak garrantzia handia du atletismoan. Horrelaxe erakutsi du Juarez sendiak; Cecilia, Fernanda eta Leonardo Juarez anai-arrebak eta Guillermo Trombotti Fernandaren senarra harro daude. Ez bakarrik helburua bete eta balentria osatu dutelako. Batez ere, "familian gozatu" dutelako.

Cecilia Frutadendaren inguruan elkartu dira asteburuko kontuak gogora ekartzeko. Herrian jakina da familiak egindakoa, eta jendea gerturatu zaie zorionak ematera.

Ceciliak eta Fernandak bigarren maratoia dute, eta aldez aurretik ezarritako helburua bete dute: lau ordutik jaistea. Ia elkarrekin iritsi ziren helmugara, bi minutuko aldearekin. "Hunkitu egin nintzen iristean, eta ahizpa eta biok besarkatu egin ginen", dio Ceciliak.

Bakoitzak bere lasterketa egin du, nork bere erritmora. Baina proba osoan ez diote elkarri animatzeari utzi. "Biretan gurutzatzen ginenean garrasi egiten genion elkarri, indarrak emateko", esan du Fernandak. "Nire arrebekin gurutzatu naizen bakoitzean hunkitu egin naiz", Leonardok. Cecilia: "Oso polita da. Nahiz eta bakarrik korri egin, sentitu dut laurak ari ginela gauza bera egiten, familian, eta indarrak eman dizkit horrek". Trombottik ere atsegin du giro hori: "Ez da lasterketa bakarrik. Aurreko uneak eta ondorengoak ere badira".

"JAKITEAK LAURAK ARI GARELA KORRI EGITEN INDARRAK EMAN DIZKIT", DIO CECILIA JUAREZEK

Prestaketa denek batera egin dute. Alde batetik, Trombotti eta Leonardo. "Asko lagundu dit koinatuak", dio Leonardok. "Ni baino indartsuago dago, baina nahiko pareko gabiltza. Eta entrenatzeko kilometro asko egin behar direnez, laguntza oso eskertzekoa da". Laurak batera ere atera izan dira entrenatzera, noizean behin.

Familia kideen artean oraindik eztabaidan daude, ea maratoia egingo ote duten hurrengo urtean. "Hilabete batzuk barru erabakiko dugu", ebatzi du Fernandak. Nolanahi ere, igandeko probarekin denboraldia amaitutzat jo du familiak. San Silvestren korri egingo dute, familia guztia batera berriz ere. "Baina desberdina da, mozorroturik aterako gara, ondo pasatzera".

Eleno, hirugarren

Badira herrian zorionak jaso duten beste hainbat korrikalari. Anabel Eleno da horietako bat. Eta ez da gutxiagorako: iazko marka hobetu, eta hirugarren egin du beteranoetan. Juarez sendiaren moduan, talde lanak garrantzia izan du Elenoren arrakastan; Javi Olazagoitia adiskideak egin dizkio erbi lanak. "Kilometroa 4:20ra joateko adostua genuen, eta berak erritmoa jarri du. Anoa postuetan bera arduratu da ura emateaz. Oso lagungarria egin zait. Ez diot ordulariari arretarik jarri ere, dena kontrolatu du berak". Modu horretan, energia aurreztu ahal izan du korrikalariak. "Javi jarraitu besterik ez nuen egin behar".

Baina hori bakarrik ez. Etengabe animoak jaso ditu lagunaren partetik. "Batez ere, azken hamar kilometroetan, oso nekatuta nengoenean". Izan ere, estrategia aldatu du Elenok. Donostiari bi itzuli egiten dizkio maratoiak, eta iaz bigarren itzulia lehenengoa baino azkarrago egin zuen, indartsu amaitzeko. Aurten erritmo bizia jarri du hasieratik, baina bigarren itzulian zertxobait motelago joan da. "Erritmoa lasaitu behar izan dut, eta tripako minarekin amaitu dut. Pena eman dit indartsu ez bukatzeak. Baina bestela ez nuen marka hautsi ahal izango".

Lasterketaren azken zatian behin baino gehiagotan esan dio Olazagoitiari aurrera egiteko. Baina hark ez du bakarrik utzi. Batera helmugaratu dira azkenean. Eta helmugan biek ospatu dute Elenoren hirugarren postua. Izan ere, neurri batean garaipena berea ere egin du adiskideak.

Lasarte-Oriako korrikalariak

- **Richard Marcos:** 2:57:24
- **Javier Olazagoitia:** 3:05:50.
- **Anabel Eleno:** 3:05:50
- **Guillermo Trombotti:** 3:12:48
- **Antonio Urruzola:** 3:25:14
- **Gorka Urruzola:** 3:25:15
- **Javier De Sosa:** 3:26:19
- **Leonardo Juarez:** 3:26:20
- **Salvador Tudela:** 3:37:06
- **Aitor Otamendi:** 3:45:26
- **Naiara Mendiluze:** 3:45:27
- **Naiara Hernandez:** 3:46:27
- **Cecilia Juarez:** 3:52:16
- **Fernanda Juarez:** 3:54:38
- **Igor Sevillano:** 3:58:03
- **Garikoitz Urruzmendi:** 4:00:23
- **Alfredo Cidoncha:** 4:02:25
- **Arantxa Zapata:** 4:06:21
- **Alain Urkola:** 4:22:46

ZORION AGURRAK

Miriam
Zorionak sorgina. Muxu handi-handia familia osoaren partetik. Zintzo portatu printzesa!

Aitor
Zorionak pittin!!! Besarkada eta muxu goxoak etxeko guztion partetik, zure bostgarren urtebetzean.

Nora
Zorionak maittia!!!! Ondo pasa eguna eta jarraitu orain bezain zoriontsu eta alai. Familiaren partetik muxussss!!!!

Irati
Kaixo pittufi. Zorionak!!! dagoneko 8 urte!!! Zeinen handia eta polita egin zaren. Ondo pasatu eguna, maite zaitugun guztion artean. muxu pila!!!

Maite
Zorionak ama! Hain gazte eta lirain izaten jarrai dezazula! Senarraren eta semearen partetik, muxu handi bat!

Miren
Zorionak sorgina!!!!! Muxu-sorta haundi bat etxekoen partetik

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu Txintxarriren bidez zoriontzeko:

Internet
Txintxarri.eus-en *txintxarri.eus/zorionagurrak* eta *Bidali zure zorion agurra* formularioa bete.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta ostiralean Txintxarri paperean.

Posta elektronikoa
Mezua bidali *txintxarri@txintxarri.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua. Ez ahaztu irudia atxikitzeaz.

Osteguneko 16:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu. Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

SUDOKUA

4		7	1	5		2	3	8
			7		2	9	5	
2			8	3				6
1	3		2		7			
		6		1	3	5		
		9				3	1	
9	8		3	2		7		
	7	3			8		2	
5			6	7		8		3

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala, 1	GIL
Larunbata, 2	GANDARIAS-URIBE
Igandea, 3	GANDARIAS-URIBE
Astelehena, 4	ACHA-ORBEA
Asteartea, 5	URBISTONDO
Asteazkena, 6	GANDARIAS-URIBE
Osteguna, 7	DE MIGUEL
Ostirala, 8	ORUE
Larunbata, 9	ORUE
Igandea, 10	ORUE
Astelehena, 11	LASA
Asteartea, 12	GIL
Asteazkena, 13	ACHA-ORBEA
Osteguna, 14	URBISTONDO

EGUNEKO FARMAZIAK: 9:00-12:00
ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943 36 26 52
ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943 36 35 49
DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943 37 11 51
LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943 36 17 74
GIL: Kale Nagusia 24/ 943 36 15 29
URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943 36 65 67
GANDARIAS-URIBE: I. de Loyola 9/ 943 01 95 21

GAUEKO FARMAZIA: 22:00-9:00
Echeveste Elosegui: Elkano Kalea 9, Hernani/ 943 55 20 87

Gipuzkoako farmazien eskuko telefonorako 2017ko egutegia eskuratzeko, bidali FARMA 215800 zenbakira. Gehienezko kostua 1,7 euro + WAP deskarga, operadorearen arabera (*www.cofgipuzkoa.com*).

TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK:
ERREGISTROA: 943 371 629
EUSKARAKO ZERBITZUA: 943 376 184
KIROLDEGIA: 943 376 182
MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA: 943 376 181
GIZARTE ZERBITZUAK: 943 376 179
KIUB: 943 361 605
UDAL EUSKALTEGIA: 943 361 621
MUNTTERI AEK: 943 372 863

LARRIALDIKO TELEFONOAK:
OSASUN ZENTROA: 943 007 960
DYA: 943 464 622
GURUTZE GORRIA: 943 363 953
UDALTZAINAK: 943 362 442
ERTZAINTZA: 943 538 840
SOS DEIAK: 112

OHARRAK

Eskertzea

Euskal Jaiak antolatzen duen talde eragileak eskerrak eman nahi dizkie jaia antolatzen edo aurreko lanetan lagundu duten elkarte, lagun talde eta norbanako guztiei.

Era berean, eguraldiari aurre eginez kantu jiran parte hartu zuten abeslari eta dantzari, heldu, zein txiki eta gaztetxoei ere eskertze beroa egiten diete, baita Loidi Barren pilotalekuan paella dastatu, bazkal ostean barre egin, herri kirolak ikusi edo erromerian dantzatzera hurbildu ziren herritar guztiei ere.

Autonomoen Gabonetako afaria

Bigarren urtez, autonomoen Gabonetako afaria antolatukoda Donostian. Abenduaren 15ean izango da, 21:30ean eta lekua zehazteko dago oraindik.

Donostialdea eta Gipuzkoako autonomo guztiak daude gonbidatuak honetan arte hartzera. Irabazi asmorik gabeko ekintza honetan afariaz gozatzeaz gain, musika eta opariak izango dituzte.

Networking-a ere izango da, hau da, beste arloetako autonomoak ezagutu, sinergiak egin eta harreman sarea zabaltzeko aukera paregabea izango dute autonomoek.

Ekitaldiaz gozatzeko 30 euro ordaindu behar dira. Plaza mugatuak dira.

Informazio gehiago eskuratzeko edo izena emateko, *gipuzkoa@navidadporcuentapropia.com* helbide elektronikora mezu bat bidali behar dute interesatuek.

San Tomaseko postu eskaera

San Tomas arratsaldean azoka egongo da Okendo plazan. Honetan Ttakunek jartzen duen talo postu eta txerriaz gain, azken urteetan herriko hainbat elkartek edo norbanakoek txistorra, salda, tortila edo gozokiak saltzen dituzte haien ekimenetarako dirua biltzeko.

Azokan parte hartu nahi dutenek, abenduaren 18a baino lehen egin behar dute eskaera. Bi baldintza bete behar dira batetik eguneko giroan txertatzea, hau da, baserritarrez jantzia joan eta postua apaintzea eta bestetik, harrera euskaraz egitea.

Postua eskatu nahi dutenek *kultura@ttakun.eus*-era mezua bidali behar dute.

Odol-ateratzearen egun aldaketa

Lasarte-Oriako odol emaileen elkarteak ohartarazten du, hilabete honetan azken astelehena Eguberri eguna izanik, odol-ateratzeen eguna aurreratzen dela. Hilabete honetako hitzordua, beraz, abenduaren 22ean, ostirala izango da.

Beti bezala Osasun Zentroan eman ahal izango da odola, 17:30etik 20:30era. Anima zaitezte, odola ordezkaezina da eta odol falta dago!

AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA

ERRENTAN EMAN

Alokairuko etxe baten bila nabil. Nahiago dut Lasarte-Orian, baina Zubietan edo Usurbilen ere izan liteke. 630682716.

Auto eta motoak gordetzeko garaje marra alokatzen da, Esperantza plazan.659021945

LANA

ESKAERA

33 urteko neska euskalduna. Haur, nagusi edo laguntza behar duen edozein pertsona zaintzeko prest Tolosaldea bailaran. Telefonoa: 625 70 98 93

Pertsona zaharrak edo haurrak zaintzeko, eta garbiketarako eskaintzen dut neure burua. Telefonoa: 637 160 734

Emakumea eskaintzen da interna modura pertsona adinduak edo etxeko lanak egiteko.Telefonoa: 671 908 616

Emakumea eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. Esperientzia du. Telefonoa: 687 675 505.

ESKELAK

JAIOTAKOAK

Youssef Zbib Moussalem. Azaroaren 21an.

HILDAKOAK

Fernando Tres Sobrino. Azaroaren 26an.

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:00	12:10	12:15	12:20
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

Hurrengo zenbakia txintxarri **Abenduaren 15ean**
Informazio gehiago txintxarri.eus orrialdean edo sare sozialetan

txintxarri www.txintxarri.eus

Argitaratzailea
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 LASARTE-ORIA
G-20407557

Erredakzioa
Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Noriega eta Adrian Garcia.

Publizitatea
Arantxi Zulaika.

Laguntzaileak
Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maider Galardi, Mikel Yarza, Nerea Segura eta Aizpea Amas.

Informatikoa
Asier Aztiria.

Administraria
Nerea Garziarena.

PUBLIZITATEA
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (106)
publizitatea@ttakun.eus

EGOITZA NAGUSIA
Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
Tel.: 943 37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@txintxarri.eus

Inprimategia
Zeroa Multimedia, S.A.

Lege Gordailua: SS-513/94
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.000 ale

TXINTXARRIk ez du bere gain hartzen kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

BABESLEA

LASARTE-ORIA UDALA

LAGUNTZAILEAK

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENA ARRATSALDEA BAINO LEHEN.

OSTIRALA 1

LASARTE-ORIA Bilera
Lasarte-Oriak gaur egun duen irisgarritasun egoerari buruzko azterketaren konklusioak azalduko ditu Ingartek Consulting enpresak. Irtenbideei buruz ere mintzoko dira. Herritarrek haien ekarpenak egin ahalko dituzte.
Manuel Lekuona, 18:00etan

LASARTE-ORIA Pintxo bidea
Hamar mokadu dastatu eta bozkatu ahal izango dituzte herritarrek V. pintxo bidean: Araeta, Arkupe, Buenetxea, Abend, Yolanda, Jalgi, Lavie, Lasarte, Txartel eta Viña del Mar. Pintxoa, 2 euro.
Hainbat taberna, 19:00etatik 21:00etara

HERNANI Euskararen Ginkana
Kuadrillategiko Kalima taldeak Buruntzaldeako Euskararen Ginkanako I. edizioko finala jokatuko du.
Orona Ideo, 17:00etan

USURBIL Erakusketa
Usoa Zumetaren lan grafikoen erakusketa irekiko da. Estanpatzaile lanetan ibilbide handia du. Abenduaren 17ra arte izango da ikusgai.
Sutegi, 19:00etan

ASTIGARRAGA Argi izpi bat
Radio Kobani dokumentala eskainiko dute eta ostean, Maryam Fathi Kurdistango aktibistaren solasaldia izango da. Ongi etorri errefuxiatuak antolatutako *Argi izpi bat itsas ilunean* ekimeneko ekintza.
Kultur etxean, 19:30ean

ANDOAIN Kontzertua
Benito Lertxundik 50 urteko ibilbidea egin du oholtza gainean. Euskal Herri osoan zehar kontzertuak emanez ospatzen ari da. Sarrera, 18 euro.
Bastero kulturgunea, 21:30ean

LARUNBATA 2

LASARTE-ORIA Pintxo bidea
Hamar mokadu dastatu eta bozkatu ahal izango dituzte herritarrek V. pintxo bidean.
Hainbat taberna, eguerdia 19:00etatik 21:00etara

LASARTE-ORIA Lasarte-Orian gai gara jaialdia. Abenduaren 3an, adimen urritasuna duten pertsonen eguna. Egun hori gogora ekartzeko Jalgune elkarteko kideek mimo handiz kolorez, musikaz eta sorpresaz betetako jaialdia antolatzen dute. Aurten *Lasarte-Orian gai gara* du izenburu. Oholtzan hamaika lagun izango dituzte. Jaialdira joateko sarrerak agortu dira.
Manuel Lekuona kultur etxea, 18:30ean

LASARTE-ORIA Jaialdia
Jalgune elkarteko lagunek *Lasarte-Orian gai gara* jaialdia antolatu dute. Sorpresaz eta lagunez beteriko emanaldia izango da.
Manuel Lekuona, 18:30ean

ASTIGARRAGA Argi izpi bat
Ongi etorri errefuxiatuak antolatutako *Argi izpi bat itsas ilunean* ekimeneko ekintzak:
12:00etatik aurrera, Munduko Begiak eta Teresa Dupoy GKE-en informazioa eta Txiapasen lanean ari den Kinal Antsetik taldeko kideek esperientzia. Makulu Ken taldearen emanaldia.
17:30etatik aurrera, Mugak zabalduz karabanaren aurkezpena. Siria, Palestina, Eritrea eta Saharako hainbat pertsonekin elkarrizketa eta munduko janariak.
21:00etan, Apalache taldearen kontzertua.
Astigarraga, egun osoa

HERNANI Antzerkia
Arena en los bolsillos taldeak *Kanpoaldea toki bat da* lana eskainiko du. 1 eta 4 urte arteko haurrei zuzendua. Sarrera, 2,70 euro.
Biteri kultur etxea, 11:30ean eta 13:00etan

USURBIL Pailazoak
Pirritx, Porrotx eta Marimototsek "Borobilean" ikuskizun berria eskainiko dute. Sarrerak aurrez salgai Bordatxon eta Marije arropa dendan.
Oiardo kiroldegia, 16:00etan eta 18:30ean

IGANDEA 3

LASARTE-ORIA Pintxo bidea
Hamar mokadu dastatu eta bozkatu ahal izango dituzte herritarrek V. pintxo bidean.
Hainbat taberna, eguerdia

ASTIGARRAGA Argi izpi bat
Zuk dokumentala eskainiko dute eta ostean, zuzendari eta produktorearekin solasaldia izango da, baita Maydayterraneo proiektuko kide batekin. Ongi etorri errefuxiatuak antolatutako *Argi izpi bat itsas ilunean* ekimeneko ekintza.
Kultur etxean, 18:30ean

HERNANI Euskararen eguna
Mintzodromoa antolatu dute herritar guztiei zuzendua.
Biteri kultur etxea, 10:00etan eta 19:00etan

USURBIL ETA AGINAGA
Euskararen eguna
Hainbat ekintza antolatu dira Euskararen eguna ospatzeko.
Usurbil eta Aginaga, 10:00etatik 21:00etara

ANDOAIN Antzerki musikatua
Tartean Teatroak *Ez dok hiru. Euskal musikaren benetako istorioa* lana emanaldia eskainko dute. Sarrera, 12 euro.
Bastero kulturgunea, 20:00etan

ZINEMA

LASARTE-ORIA

MANUEL LEKUONA

Pasaiako badia
Ostirala: 22:00.

Hurrak eta lapurrak 2
Igandea: 17:00.

La batalla de los sexos
Igandea: 19:30.

URNIETA

SAROBE

Handia
Igandea: 19:00.

USURBIL

URBIL

Asesinato en el Orient Express
Ostirala: 15:45, 17:50, 20:10, 22:30, 00:50.
Larunbata: 15:45, 17:50, 20:10, 22:30, 00:50.
Igandea: 15:45, 17:50, 20:10, 22:30.

Coco
Ostirala: 16:20, 17:00, 18:00, 19:00, 20:15, 21:40, 00:20.
Larunbata: 16:20, 17:00, 18:00, 19:00, 20:15, 21:40, 00:20.
Igandea: 16:20, 17:00, 18:00, 19:00, 20:15, 21:40.

El secreto de Marrowbone
Ostirala: 16:20, 22:35, 00:55.
Larunbata: 16:20, 22:35, 00:55.
Igandea: 16:20, 22:35.

Liga de la Justicia
Ostirala: 16:10, 19:00, 21:45, 00:15.
Larunbata: 16:10, 19:00, 21:45, 00:15.
Igandea: 16:10, 19:00, 21:45.

Perfectos desconocidos
Ostirala: 15:55, 18:10, 19:10, 20:40, 21:35, 22:50, 23:45, 00:55.
Larunbata: 15:55, 18:10, 19:10, 20:40, 21:35, 22:50, 23:45, 00:55.
Igandea: 15:55, 18:10, 19:10, 20:40, 21:35, 22:50.

Paddington 2
Ostirala: 15:45, 18:35.
Larunbata: 15:45, 18:35.
Igandea: 15:45, 18:35.

Saw VIII
Ostirala: 20:35, 22:55, 01:00.
Larunbata: 20:35, 22:55, 01:00.
Igandea: 20:35, 22:55.

Wonder
Ostirala: 16:50, 19:35, 22:00, 00:25
Larunbata: 16:50, 19:35, 22:00, 00:25
Igandea: 16:50, 19:35, 22:00.

LABURPENA

Pasaiako Badia (JBGA)
Zuzendariak: Oinatzak Produkzioak (Yuri Agirre, Xabier Otamendi eta Erik Aznal). **Herr.:** Euskadi (2017). **Iraupena:** 90 minutu

Pasaiako gertaerei argi izpi bat

1984ko martxoaren 22an Espainiako Poliziak Komando Autonomo Antikapitalistetako lau kide hil zituen Pasaian, eta han jazotako gertaerak oinarri ditu dokumentalak. Kasua behin betiko artxibatu berri dute eta familiek Estrasburgora joateko asmoa adierazi dute.

Egileek adierazi dutenez, "ikerketa lana, sakontasuna eta zorroztasuna" biltzen ditu dokumentalak, baita produktua erakargarria egiteko narrazio elementuak ere. Batzuetan, thriller pelikulen ezaugarriak hartzen ditu dokumentalak, egileen hitzetan. "Momentu intimo eta hunkigarriak" ere jaso dituztela iragarri dute.

Oinatzak produkzioak finantzaketa kolektiboari esker lortu du proiektua gauzatzea.

Dokumentalean, hildakoen senideek, Joseba Merino eta Rosa Jimeno gertaeren lekuko zuzenek, Pasaiako herritarrek, Santi Gonzalez eta Miguel Castells abokatuek, Carlos Garaikoetxea lehendakari ohiak, Paco Etxeberria mediku forentseak, Fernando Orgambides El Paiseko kazetaria zenak eta Enrique Villareal 'El Drogas' musikariak parte hartu dute, besteak beste.

Dokumentala jatorrizko bertsioan eskainiko da eta gaztelerazko azpititulatuak izango ditu. Sarrera,

Okendo Zinema taldearen zine forumean dokumentalaren zuzendarietako bat izango da. Grabaketaren nondik norakoak azalduko ditu.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots

disko-liburua

Joan Mari Irigoienen olerkiak
Xabier Zabalaren musika
Jose Luis Zumetaren ilustrazioak

disko-liburua

Karlos Osinaga eta Joseba Ponceren
musika eta ilustrazioak

DVD bikoitza

* TIPI-TAPA, KORRIKA! ikuskizuna

* Pupu eta Lore HAIZEAREN HERRIRA
* AITONA-AMONEN EGUNA erreportajea

BOROBILEAN bilduma: Plaza ipuina eta kartoizko ipuinak
Testua: Uxue Alberdi Marrazkiak: Julian Toquero

Puzzleak

30. urteurrena ospatzeko, eskaintza bereziak eta opariak zuzeneko saioetan eta webgunean

www.katxiporreta.eus www.facebook.com/pirritx.porrotx.eta.marimotots

Katxiporreta KOOP.E.

Oria etorbidea, 10
Brunet Eraikina 5, E-4
20160 LASARTE-ORIA
Tel.: 943 368 404

GABONETAKO ALE BEREZIAK ABENDUAREN 22AN ETA 29AN

Bertan zure zerbitzuak iragarri nahi dituzu?
Jar zaitez gurekin harremanetan!

publizitatea@ttakun.eus • 943 37 14 48 (106) • 646 82 44 66

VARILUX® essilor® Transitions®

TRANSITIONS TRATAMENDUA DUTEN LENTE PROGRESIBOEKIN, **2. LENTE PAREA**

DOAN

www.multiopticasgipuzkoa.com

ARRASATE • BEASAIN • BERGARA • DONOSTIA
ERRENTERIA • EIBAR • IRUN • ORDIZIA • TOLOSA

Kontsulta itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

R.P.S. 175/15 I.L.G.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIÓPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan